

# Gizon etikazalearen emaitzak

**Felipe Juaristi**

"Ostegun izan zen gizona"  
Gilbert Keith Chesterton  
Ibaizabal, 1998

Chestertonek toki garrantzitsu eta gailurra du nire liburutegian: Cunqueiroren atzetik alfabetoaren arabera; galziarraren pare, ordea, ez gorago ez beherago, literatur mailan, eta ez da gutxi. Bestalde Gilbert Keith Chestertonen bizitza bera ere, lagun zein etsaiei sinestera, ekaitzaren antzekoa izan zen. Idazleari buruz esaten dituzten kontuen artean aipa dezadan erlijio katoliko apostolikora bihurtu zela 1908an, 34 urte doi zituela, eta harrez gero erlijio horren defendatzaile sutsu izan zela, herexeen mailu alegia. "Ortodoxia" liburua da horren adibide garbiena. Nobela bat balitz bezala irakurtzen da. Gairik delikatuenak ukitzeko, gairik metafisikoenei buruz bere teoriak azaltzeko, Chestertonek metaforak, konparazioak, parabolak erabiltzen ditu. Erlijio kontuan egindako aldaketa paradoxa batez azaldu zuen: "Haur azkarrek egiten duten moduan, nik ere aurre hartu nahi izan nion neure garaia; haien antzera aurre hartu nahi izan nion neure denborari, hamar minutu gutxienez. Eta zertarako? Azken finean mila zortziehun urte atzetik nenbilela konturatzeko".

Ostegun izan zen gizonak irakurketa bat baino gehiago ditu. Batzuentzat abentura nobela soil da, oso dibertigarria eta errealtatearekin zerikusi handia duena. Ez alferrik Chestertonen nobela hau aipatua izan da Roldanen kasuaz hitz egiterakoan. "Lapur bat poliziaburu", espantatuka oihu egiten zietenei erantzuteko modua. Izan ere, abentura bat balitz bezala irakur daiteke. Baina beste irakurketa batzuk ere posible dira. Juan Garzia Garmendiak hitzaurrean bertan bat baino gehiago azpimarratzen ditu, Borgesen aipu eta guzti. Niri gehien interesatzen zaidana, ordea, metafisikoa da. Nobela parabola handi eta eskerga balitz bezala hartu, eta ondorio filosofiko eta etikoak atera. Liburu handia baita Chestertonen hau, bere azaleko itxura koskorrean. Etika zertan den azaltzea du helburuenetako bat.

Itzulpen ederra egin du Juan Garziak. Itzulpenetik itzulpenera horrek ere proposamen estetiko ezberdinak planteatzen dizkigu. Lehengoz gain beste batzuk eransten dituela esan nahi dut. Hala ere, aitortu beharra dago, badakiela testua bere horretan euskarara ekartzen, itxuraz lan eta neke handirik gabe.

*El Diario Vasco*, 1998-09-19